

Urratzen duen zinea

Esteak joan dira *Tiro en la cabeza* ikusi genuenetik, eta oraindik orain durduzaututa jarraitzen dut Jaime Rosalesek Donostiako Zinemaldira ekarritako filmarekin. Maisulana ote den ala baso izan nahi lukeen bonsai puzgarri hanpatua, horixe esateko gai ez naiz. Muturrera eramandako esperimentua dela, zine aretoetan, Interneten eta museoetan bideo-instalazio gisara aldi berean estreinatuko dela... Zantzu asko ematen ditu honek zinemaren etorkizunaz –erran nahi baita: aurrera egin nahi duen zinemarenaz, bere burua berrasmatu nahi duen lengoaia horretaz—. Bai, ba: zerbaitek kra egin zigun barruan film hori ikustean, Donostiako kaleak ezagugarri baina desberdin atzematean –eta merke filmaturik, bidenabar... Kataluniar batek etorri behar hori egitera ere... guri ez zaigu bururatzen, guk ez dakigu?–.

Filma bezain interesgarria izan zen prentsaurrekoa. Ez ziren galderak falta izan: lehen, kazetari poloniar bati egokitzea nahi izan zuen zoriak. Barkamena eskatuz egin zuen, halabeharrak itaun-txanda zabaltzeko aukera gaia urrun antzean harrapatzen duen norbaiti eman ziolako desenkusatu. Kazetari poloniarren jarrera giza-bidetsuak ematen zuen zer pentsa: garagardo lataz betetako etxeko sala narra setik korroka mintzo direnak bezala egiten baitituzte usu galderak kazetari gehienek. Ez, errespetua ez dago boladan. Polonian asilo eskubidea eskatzeko gogoa erne zitzaigun erreportari fin hari entzunda.

Testuingururik kanpo filma ulertuko ote zen kezka agertu zuen kazetari poloniarrek, tirokatzailen motibazioari buruzko pistarik ematen ez zela eta. Motiba-



DANI BLANCO

zioetan aztarrika ibilita topatzen den absurdua ekarri zuen gogora Rosalesek, fin harilkatutako azalpenetan. Ez ziren samurrak izan haren ondotik etorri ziren galderak, kazetari espainiarrek eginak ia denak (galdera izatera ere iristen ez ziren juzkuak, asko): “biktimentzako iraingarria eta gustu txarrekoa iruditu zait tirokatzearen ondoren supermerkatuetako publizitate panelak agertzea”; “Zergatik amaitzen da filma tirokatzailen ihesarekin, Cap Bretonen gertatutakoaren ondoren, errealitatean, egun

gutxiren buruan atxilotu bazituzten?” (!); “Nola izan zara gauza, Jaime, iheslariek lapurtutako autoaren gidaria zuhaitzera lotzen dutelarik, emakumezko terrorista horrek gidariari samurtasunez besoa sorbaldan jartzen dion eszena hori filmatzeke?”. Egia da kazetari gehienak isilik egoten direla prentsaurrekoetan; gehiengo isil horretan, normaltasunetik gertuago, galdera interesgarriak bere golkorako gordetzen dituen jendea ote dagoen hipotesiak kontsolatzen nau beti (“bedeinkatuak lotsatiak, haiena izango baita mundua”; edo..).

Bezperan Bobby Sandsean duintasunaren gorazarrea den *Hunger* film latz eta bikaina txalotu zuten berberak, ez ziren orain Rosalesena irizpide zinematografikoaren arabera epaitzeko gai: zerbaitek lainotzen zien begirada. Erraiak eskuetan ditugunean, zaila da, agidanean, burua hotz mantentzea. Donostiako filosofo ezagun bat, lehen lerroetan eserita zegoena, hogeita bost minuturen buruan altxatu zen besaultik: aretotik irten egin zela pentsatu nuen, baina agian perspektiba bila abiatu zen atzeragoko ilararen batera, filma amaitutakoan han baitzegoen, komunikabideei bere iritzia ematen.

Ez dakit norik zioen ez dagoela ongi jarritako puntu bat baino tiro hoberik. Ongi etorriak bitez, zeluloideko eztanda uhin luzeko hauek ere. ■



Ez dakit norik zioen ez dagoela ongi jarritako puntu bat baino tiro hoberik. Ongi etorriak bitez, zeluloideko eztanda uhin luzeko hauek ere

